

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

**KONTROL MOZIOA**

**HIRIKO ERAGILE ZEIN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK MURRIZTEKO  
IRIZPIDEAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko azaroaren 16an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Donostiako Gobernu Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 14an izan zuen bileran, oinarri orokor eta espezifiko batzuk onartu zituen, Udalak irabazi asmorik gabeko elkarteei 2020an eman behar zizkien dirulaguntzak arautzeko. Guztira, 1.827.354,62 € jarri zituen Udalak horretarako.

2020ko irailaren 8an, ordea, Gobernu Batzarrak aipatutako dirulaguntzen aurrekontua murriztea erabaki du, COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela eta, aurrekontuan jarritako diru sarreraren bilketa nabarmen jaitsi dela arrazoituz.

Diktamenean irakurri dugunez, Udal Gobernuak ez du elkartegintzaren aldeko konpromisoa alde batera utzi nahi, baina, une honetan, dirulaguntzen deialdi horretarako lerro batzuentzat jarriak ziren kopuruak %20 murriztu behar direla iruditzen zaio, dirulaguntza horietarako izendatuta zeuden diruen parte bat aurreragokoak diren beste behar batzuetara bideratu behar dela eta.

Gauzak horrela, honako kontu-sail hauek dira murriztu dira:

- **Gizarte ongizatea:** Zuzendaritza eta administrazioa. 481.01 kontu-saila. Zenbatekoa: 56.000 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 224.000 €

- **Herritarren Partaidetza:**

1. Herritarren partaidetza proiektuak. 481.01 kontu-saila. 5.544,40 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 22.177,60€.
2. Auzo elkarten mantentze gastuak. 481.01 kontu-saila. 8.930,60 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 35.722,40€.

- **Giza eskubideak eta memoria historikoa:** Bake proiektuetarako eta gutxiengoetarako dirulaguntzak: 481.01 kontu-saila. 10.060 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 40.240€.

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

- 6.1. Eranskina: 481.01 kontu-saila. 8.600 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 34.400€
- 6.2. Eranskina: 481.01 kontu-saila. 1.460 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 5.840€.

#### **- Ingurumena:** Ingurumen Kalitatea eta Jasangarritasuna:

- Erakundearen ohiko jarduerari eustea. 481.01 kontu-saila. 1.100 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 4.400€.
- Ingurumenaren arloko berariazko proiektuak garatzea. 481.01 kontu-saila. 3.800 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 15.200€.

#### **- Euskara:** Elkarte eta entitateentzako dirulaguntzak.

- Auzoetako plan integralak. 481.02 kontu-saila. 9.020 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 36.080€.-
- Jarduketa zehatzak. 481.02 kontu-saila. 3.005 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 12.020€.
- Euskararen eguneko programak. 481.02 kontu-saila. 1.540 euro baliogabetzea. Kreditu erabilgarria: 6.160€.

Hau ikusita, hainbat eragile eta elkarte gurekin jarri dira harremanetan murrizketak egiteko irizpideak zeintzuk diren jakiteko. Urriaren 1ean egindako Lankidetzak Kontseiluan ere, eragileek aurrekontu "berriaren" argazki osoa eta murrizketak egiteko Udal Gobernuak jarraituko dituen irizpideen zerrenda eskatu zuten. Gaur gaurkoz, ez dakigu zein adierazle edo irizpide tekniko jarraitu diren sail batzuetan aurrekontua murrizteko eta beste batzuetan ez, eta Udal Gobernuaren ordezkariekin izandako elkarrizketetan ez dugu argibiderik jaso.

Azaroaren 16ko batzordeetan. Ogasuneko delegatuak azaldu zuen dirulaguntzak murrizteko arrazoia Foru Funtsaren kantitatearen beherapena izan dela, baina ez zuen laguntzak murrizteko edo mantentzeko irizpideak zeintzuk izan diren zehaztu (eragilearen erabiltzaile kopurua? eragilearen lan sektorea? etab.). Esate baterako, lankidetzako, gizarte larrialdietarako eta etxez etxeko laguntzako partidak mantendu dira, eta horrela izan behar dela uste dugu, baina erabaki hauek hartzeko irizpideak argiak eta gardenak izan behar direla deritzogu.

2021eko aurrekontuari dagokionez, delegatuak adierazi zuen Udal Gobernuak ez duela erabakirik hartu diru laguntzen inguruan. Kontuan izanda hirugarren sektoreko eragileek administrazio publikoak berak dituen hutsuneak bete dituztela osasun alarma egoera honetan eta lanpostu kopuru garrantzitsu bat mantentzen dela eragile hauei esker, akatsa deritzogu 2021ean ere %20ko murrizketari jarraipena ematea.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

**KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2021. urtera begira ez dezala murrizketarik aplikatu irabazi asmorik gabeko elkarteei eman behar dizkien dirulaguntzetan eta, gutxienez, 2020ko aurrekontuan berez aurreikusita zeuden partidak manten ditzala.

Donostian, 2020ko azaroaren 20an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**